

MAITENA ILLARRAMENDIK ETA IÑIGO SARASOLA MARRAZKILARIAK ‘KATERIÑE’ IZENeko KOMIKIA PLAZARATU DUTE



Maitena Illarramendik eta Iñigo Sarasola marrazkilariak ondu dute lana eta hausnarketa eta oihu kolektibo bat piztea du helburu.

Maitena Illarramendik eta Iñigo Sarasola marrazkilariak *Kateriñe* komikia aurkeztu dute Erein argitaletxearen eskutik. Egileek beren amamak 1936ko gerran bizi izandakoak jaso dituzte lan honetan.

Illarramendik azaldu duenez, "istorio hau ez da hasten orain, ezta komikiaren lehen binetarekin ere. 1936ko uztailaren 19an hasi zen, gure amama Kateriñeren barruan, eta su baxuan gordeta egon da urte askoan. Orain oihu moduan aterata da, irrintzi bihurtuta, eta guk forma eman diogu. Ez da oihu pertsonal bat soilik: beste askoren ahotsa ere bada. Gerrako zauri kolektibo baten adierazpena da, eta gaur egun ere bizirik dirau".

Katerine "emakume sentsitiboa, intuitiboa eta memoria historiko bizikoa" zela adierazi dute egileek, "24 urterekin, gerrak eztanda egin zuenean, Tolosa utzi behar izan zuen eta bonbetatik ihesi ibili zen Donostia, Bilbo eta azkenean Hendaia zeharkatu zituen ihesean. Bizirik aterata zen biktima bat izan zen".

Komikian bi testigantza agertzen dira: aitonarena eta amamarena, "bi ikuspegi, bi min mota. Eta bi minen arteko elkarriketa. Helburua da hausnarketa eta oihu kolektibo bat piztea".

Aitona Eusko Jaurilaritzako agintarien txoferra izan zen eta "autoan eserita, lehen eskutik jasotzen zuen informazioa, elkarriketak entzunez".

Amamak, berriz, beti idazten zuen, "eguneroko bat zeraman, baina beldurragatik suntsitu egin zuen. Geroago, 80 urte pasata, berriz hasi zen. Guri ere beti kontatzen zizkigun gerra garaiko istorioak".

Illarramendi Kateriñeren biloba da, eta testuak egokitzeaz arduratu da. Baina berez, "Kateriñe Letamendi bera da obra honen benetako autore, nire amama, iturri testuak amamak idatzi zituelako".

Egileek argi utzi dute, "ez da propaganda, ez da historia-liburu bat: bizipen erreala da, irakurlearen barrenean heltzeko egin. Gerra ez da bonbak bakarrik: etxea galtzea, senideak galtzea, ihes egitea, beldurra hezurretaraino sartzea. Amama negarrez ikustea da, eta orain bere malkoak hitz bihurtzea".

Facebook Twitter

You may also like

Edorta Jimenezek 'Aizkorak eta gutunak' nobela historikoa aurkeztu du Elkar argitaletxearen eskutik

Posted on 2025-09-04 by KulturSharea

Mundakako idazleak Aizkorak eta gutunak izeneko nobela historikoa [...]

Bideo_albisteak literatura Multimedia

Zigako orgak eskuratu zuen Baztandarren Biltzarreko orgen desfileko 1. saria igandean

Posted on 2025-07-23 by KulturSharea

Bideo_albisteak Multimedia

Iñaki Dorronsorok umoretik idatzitako nobela beltza plazaratu du 'Azpijekoa Azpiazun' izenburupean

Posted on 2025-07-07 by KulturSharea

Idazleak estreina liburu du Azpijekoa Azpiazun (Erein). Lapurretak, [...]

Bideo_albisteak literatura Multimedia

Aitziber Etxeberriak etorkizun hurbil bat irudikatu du, ustezko gizarte hobea go batek dituen gabeziekin

Posted on 2025-09-25 by KulturSharea

Nobela hau idazterako orduan bi kezka nagusi izan ditu buruan egileak: [...]

Bideo_albisteak literatura Multimedia

Gorka Urbizuren zuzeneko Donostiako Tabakaleran, Musikaren Egunean

Posted on 2025-06-23 by KulturSharea

Bideo_albisteak Multimedia musika

Kolore biziak nagusi Anoetan, faxismoaren kontra (FM Muguruza. 1984-2024)

Posted on 2025-06-16 by KulturSharea

2013. urtetik agertoki handietara igo gabe egon ondoren, Fermin [...]

Bideo_albisteak Multimedia musika

Ane Aierbek eta Uxue Urdangarinek Gure Zirkua ardatz duen denbora-pasa koadernoak aurkeztu dute

Posted on 2025-06-13 by KulturSharea

Zortzi urtetik gorako haurrei zuzenduta. Koadernoak denbora pasez [...]

Bideo_albisteak Multimedia

Jon Maiaren 'Kantu berri bat gara' biraren azken gaua Itzurun hondartzan

Posted on 2025-05-28 by KulturSharea

Bideo_albisteak Multimedia

Xabier Mendiguren idazleak 'Borrero Txiki bat da' nobela laburra kaleratu du

Posted on 2025-05-09 by KulturSharea

Bideo_albisteak literatura Multimedia

Pertsonaia publikoen bizitza pribatuaz hausnartzeko eleberria ondu du Goiatz Labandibarrek

Posted on 2025-04-30 by KulturSharea

Eresia hil-kanta aitari da idazle oiartuarra gaur aurkeztu duen [...]

Bideo_albisteak literatura Multimedia

Zabaldut:

	EDORTA JIMENEZEK 'AIZKORAK ETA GUTUNAK' NOBELA HISTORIKOA AURKEZTU DU ELKAR ARGITALETXEAREN ESKUTIK
--	---



Lege oharra

✉ albisteak@kultursharea.eus

Publizitatea

LAGUNTZAILEAK



LANKIDETZAK

